



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 14a

86. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdintasunaren arloko lan-araudi osoa betetzen dela bermatzeko behar diren ekintza guztiak bultzatzen. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanbide Heziketa eta enplegu politikak modu bateratuan uztartu ditzan eta Lanbide Heziketako ikastetxe integratu berri bat eraiki dezan Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualderako. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pizgarriengatik kenkarietarako baldintzak hobetu ditzan sozietateen gaineko zergan, babes-jardueretarako. Luis Casado Oliver jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen eta irakasle ez diren langileen soldata % 1 igo dezan. Osoko Bilkuran izapidetzea (5. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Paternaingo Kontzejuari buruzko fiskalizazio txostena, 2011-2014, Kontuen Ganberak egina. (6. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdintasunaren arloko lan-araudi osoa betetzen dela bermatzeko behar diren ekintza guztiak bultzatzen.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berdintasunaren arloko lan-araudi osoa betetzen dela bermatzeko behar diren ekintza guztiak bultzatzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezteko dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Enplegua eskuratzeko bazterkeria-ezaren, tratu-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren printzipioa aitortuta dago nazioarteko, Europar Batasuneko eta barneko arauetan. Eskubideen nazioarteko adierazpenetan berdintasunerako eskubidea aitortuta egoteaz gain, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 111. Hitzarmenak, enplegu- eta lanbide-bazterkeriari buruzkoak, honela definitzen du bazterkeria: "edozein bereizketa, bazterketa edo lehenespen, baldin eta hori

oinarrizten bada arraza, larru-kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, nazio-jatorri edo gizarte-jatorriaren araberrako arrazoiengan, eta horren ondorena bada enpleguan eta okupazioan aukerei edo tratuari dagokien berdintasuna deuseztatu edo aldatzea." Eta 13. artikuluan berriaz aipatzen du enpleguan onartzeari dagokion bazterkeriarik eza.

Tratu-berdintasunari buruzko zuzentarauak (2000/43 Zuzentaria, etnia- edo arraza-jatorri-gatik berdintasunari buruzkoa, 2000/78 zuzentaria, enplegu eta lanbideko berdintasunari buruzkoa eta 2006/54 Zuzentaria, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoa), enpleguan sartzeko baldintzei dagokienez, babesa ematen diete sektore publikoari eta pribatuari, nor bere gain egindako jarduerari eta jardun profesionalari, barne harturik hautaketa-irizpideak eta kontratazio-baldintzak. Tratu-berdintasunari buruzko Europar Batasuneko zuzentariaren transposizioarako, 62/2003 Legea onetsi zen, zerga-, administrazio- eta gizarte-neurriari buruzkoa, tratu-berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa eragingarritasunez aplikatzeko.

Azkeneko urteotan arauen bilakaera bat izan bada ere, eguneroko jardunean asko dira enpleguan eta enplegura sartzeko gertatzen diren bazterkeriak. Biztanleria Aktiboaren azkeneko Inkestak, aurtengo lehenengo hiruhilekoari dagokionak, erakusten duenez, Nafarroako industria-sektorean enplegua duten emakumeak 15.500 dira; alegia, industrian enplegua duten lau pertsonetatik bat bakarrik da emakumea.

Nafarroako industrian sexua ez da bazterkeriaren arrazoi bakarra: arraza, sexu-joera eta arlo sindikaleko arrazoiengatik ere gertatzen dira bazterkeria larriak.

Praktika horiek kolektibo jakin batzuk desabantailako egoeran jartzen dituzte lan-merkatuan edo lantokian, sexua, arraza, larru-kolorea, sindikatu-afiliazioa, jarrera politikoa edo burutu beharreko lanarekin zerikusirik ez duen beste edozein ezauzgarri dela medio.

Praktika horiek erazteko neurri egokiak berehala hartu behar dira, enplegurako eta lanbiderako sarbidean bazterkeria desagerrarazi eta lantokian aukera- eta tratu berdintasuna bermatze aldera.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berdintasunaren arloko lan-

araudi osoa betetzen dela bermatzeko behar diren ekintza guztiak bultzatzen, bere eskumenaren esparruan, eta ekintza zehatzak abiaraz ditzan enplegura eta lanbidera sartzean tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzeko eta arraza, larru-kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, nazio-jatorri edo gizarte-jatorriaren arabera arrazoiengan oinarritutako bazterkeria Nafarroko enpresa guztietan erazteko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 8an

Foru parlamentariak: Virginia Alemán Arrastio, Aranzazu Izurdiaga Osinaga, Carlos Couso Chamarro eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lanbide Heziketa eta enplegu politikak modu bateratuan uztartu ditzan eta Lanbide Heziketako ikastetxe integratu berri bat eraiki dezan Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualderako.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Lanbide Heziketa eta enplegu politikak modu bateratuan uztartu ditzan eta Lanbide Heziketako ikastetxe integratu berri bat eraiki dezan Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualderako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Dokumentu hau sinatzen dugun taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren

babesean, honako mozio hau aurkeztu dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualdeko egungo Lanbide Heziketak ez ditu alor horretako beharrak asetzen, arrazoi desberdinak direla medio. Batetik, dituen azpiegitura fisikoak egoera tamalgarrian daudelako: eraikinak ez dituzte baldintzak betetzen (teillatu erorketak, instalazio eta baliabide zaharkituak, eta leku eskasia dago), ikastetxeak sakabanatuak daude (Elizondo, Lekaroz, Bera) eta eskaintza akademikoa ez da egungo beharretara egokitua. Bertetik, ez dago inolako egituraketarik lanbide prestakuntzan eta enpleguan ardurak dituzten agente ezberdinen artean. Doneztebeko Enplegu Agentziak eragin eskasa dauka, enpresa elkarterik ez dago eta eskualdean ordezkariak duten sindikatu nagusiek ez dute baliabide ekonomikorik prestakuntza eskaintzeko. Horrek guztiak eragiten du lanbide prestakuntza arautuan gabezi larriak izatea eta prestakuntza ez arautua hutsaren hurrengo izatea.

Azkeneko hamarkadetan, eskualdeko Lanbide Heziketak ez du administrazioen arretarik ez eta inbertsiorik jaso ere. Baztan-Bidasoa-Urdazubi-Zugarramurdi eskualdeko Lanbide Heziketaren beharrak bermatzeko ezinbertzeko jotzen dugu

Nafarroako Gobernuaren inplikazio irmoa. Hala, eskatzen diogu ekimen honen alde egin dezala eta bere gain har dezala proiektua errealitate bihurtzeko ardura. Aipatu nahi dugu eskualdeko udal guztiok aho batez atxikimendua emana diogula jadanik Lanbide Heziketako ikastetxe berri bat eraikitzekeo proiektuari, jakin badakigulako eskualdearen garapen sozial eta ekonomikoan garrantzi handiko azpiegitura izanen dela, eta uste dugulako ikastetxe berria izanen dela lanbide prestakuntzan eta enpleguan jarduten duten agente guztien erreferente nagusia.

Arrazoi hauek ikusita, Nafarroako Parlamentuak honako hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

1) Lanbide Heziketa eta enplegu politikak modu bateratuan uztartzea eta behar diren neurriak inplementatzea.

2) Lanbide Heziketako ikastetxe integratu berri bat eraikitzea eskualdeko erdigunean.

3) Lanbide Heziketako ikastetxe berriak eskualdeko errealitate sozioekonomikoa kontuan izatea, bertako beharretara egokitzen den kalitatezko prestakuntza eskainiz.

4) Lanbide Heziketako ikastetxe berriak euskarazko eskaintza bermatzea, inguruko herrietako ezaugarri eta behar soziolinguistikoak kontuan hartuz.

Iruñean, 2016ko ekainaren 8an

Foru parlamentariak: María Solana Arana, Miren Aranoa Astigarraga, Teresa Sáez Barrao eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pizgarriengatikoen kenkarietarako baldintzak hobetu ditzan sozietateen gaineko zergan, babes-jardueretarako.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita pizgarriengatikoen kenkarietarako baldintzak hobetu ditzan sozietateen gaineko zergan, babes-jardueretarako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko kide Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezten du, 2016ko ekainaren

16ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko, Nafarroako Gobernuak pizgarriengatikoen kenkarietarako baldintzak sozietateen gaineko zergan hobetzeari buruzkoa, babes-jardueretarako.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko 2016rako Foru Legeak jasotzen zuen, beste neurri batzuen artean, kenkarien aplikazio-ordenari buruzko argibide bat; halatan, hobariak eta barneko nahiz nazioarteko zergapetze bikoitzagatikoen kenkaria gauzatu ondotik, lehenbizi aplikatuko dira aurreko zergaldietan sortutako kenkariak. Ondotik, muga hori aplikatuko dira, ekitaldikoak, aplikatuko dira; betiere, aurreko lerrokadako kenkarien eta lerrokada honetakoen artean osotara % 25eko muga gainditzen ez den bitartean.

Egoera hori alarma pizten hasi da beren denboraldia uda baino lehen bukatzen den kirol-klubetan (eskubaloia, saskibaloia, areto-futbola, futbola...), zeinak kirol-denboraldi berria –eta, hortaz, beren aurrekontuak– planifikatzen ari baitira. Urte amaieran beste horrenbeste gertatuko da gainontzeko kirol-klubetan, kultur entitateetan eta gizarte-entitateetan.

Horien diru-iturrietako bat da zenbait enpresaren babes; izan ere, enpresa horiek, Nafarroako Gobernuak ezarritako zerga-pizgarriari esker, laguntza ematen zuten, entitate horiek enpresak konbentzitze aldera egiten duten ahalegin handiari esker. Enpresa horiek beren babes-emateari buruzko zalantzak edukitzeen hasiak dira, azken erreforman muntako aldaketak egin baitira.

Beren aurrekontuen parte bat babes horiei esker finantzatzen duten Nafarroako ehunka kirol, kultur eta gizarte-entitateei kalte handiagoa egitea

ekidite aldera, eta Gobernu honek 2017rako aurrekontuetan entitate horientzako laguntza hobetuko ez duelako segurtasunaz, honako hau proposatzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du pizgarriengatik kenkarietarako baldintzak hobetu ditzan sozietateen gaineko zergan, babes-jardueretarako.

Tuteran, 2016ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen eta irakasle ez diren langileen soldata % 1 igo dezan.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen eta irakasle ez diren langileen solda-

ta % 1 igo dezan. Mozioa 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Paternaingo Kontzejuari buruzko fiskalizazio txostena, 2011-2014, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Paternaingo Kontzejuari buruzko fiskalizazio txostena (2011-2014) egin du, 2014ko ekitaldikoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Paternaingo Kontzejuari buruzko fiskalizazio txostena, 2011-2014, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|--|---|
| <p>I. Sarrera (7. or.).</p> <p>II. Helburua (9. or.).</p> <p>III. Norainokoa (9. or.).</p> <p>IV. Iritzia (10. or.).</p> | <p>IV.1. 2014ko aurrekontuaren likidazioari buruzko iritzi finantzarioa (10. or.).</p> <p>IV.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (11. or.).</p> <p>IV.3. Kontzejuaren 2014ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (11. or.).</p> <p>V. Kontzejuaren 2014ko aurrekontu-likidazioaren laburpena (15. or.).</p> <p>V.1. 2014ko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren egoera-orria (15. or.).</p> <p>V.2. 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (15. or.).</p> <p>VI. Kontzejuari buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak (16. or.).</p> <p>VI.1. Alderdi orokorrak (16. or.).</p> <p>VI.2. Langileak (19. or.).</p> <p>VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (19. or.).</p> <p>VI.4. Finantza-gastuak (20. or.).</p> <p>VI.5. Transferentzien ondoriozko gastuak (20. or.).</p> <p>VI.6. Inbertsioak (20. or.).</p> <p>VI.7. Finantza-pasiboen gastuak (20. or.).</p> <p>VI.8. Aurrekontuko diru-sarrerak (21. or.).</p> <p>Eranskinak (24. or.).</p> |
|--|---|

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bere jarduera-programari jarraituz, Paternaingo Kontzejuaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Paternaingo Kontzejua gaur egun Zizur Zendearen udalerria osatzen duten zortzi kontzejue-tako bat da.

1,82 km²-ko hedadura du eta Zizur Zendeako udalerraren azaleraren ehuneko 4 hartzen du. 2014an, 357 biztanle zituen, udalerrri horretako biztanleen (3.976 biztanle) ehuneko 9,4 dauzka. Biztanle kopuruari erreparatuta, hirugarren kontzejua da, Zizur Txikiko Kontzejuaren (2.402 biztanle) eta Azteraingo Kontzejuaren (358 biztanle) atzetik.

Azken urteetan populazioak ehuneko 526 egin du gora: 2001ean 57 biztanle izatetik 2014an 357 biztanle izatera, bertan zenbait etxebizitza sustapen egin baitira.

Kontzejuak ez du mendeko entitaterik.

2014ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren entitate honen funtsezko datu ekonomikoak:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2014-12-31n
Kontzejua	59.364	48.992	0

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 39. artikuluan, toki entitateei dagozkien eskumenen banaketa dela eta, honako hauek ageri dira.

“39. artikulua

1. *“Kontzejuen kudeaketa eta administrazio organoei dagokie ondoko arlo hauei buruzko eskumenen erabilpena:*

a) Ondarearen administrazioa eta kontserbazioa, bai eta haren aprobetxamendua eta erabilerara antolatu eta arautzea ere; b) Bere mugapeko landa bideen mantentze- eta zaintza-lanak, baita Kontzejuaren interesekoak baizik ez diren erabilera eta; c) Udalaren aginduzko txosten loteslea jaso ondoren, planeamenduaren arabera hirigintza-lizentziak ematea; d) Bideak garbitzea; e) Argiteria publikoa; f) Hilerrien zaintza eta mantentze lanak; g) Kontzejuko artxiboa; h) herriko jaiak”.

Beren eskumenak betetzeko, martxoaren 10eko Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 5. eta 7. artikuluetan honako baliabideak esleitzen dizkie kontzejuei:

“a) Tributuz besteko baliabideak:

1. *Berezko diru-sarrerak edo Zuzenbide pribatukoak.*
2. *Herri-aprobetxamenduak.*
3. *Salneurri publikoak.*
4. *Isunak.*
5. *Bestelako prestazioak.*
6. *Zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrerak.*

b) Estatuaren tributuetako partaidetza.

c) Nafarroako tributuetako partaidetza.

d) Diru-laguntzak.

e) Kreditu eragiketak.

Kontzejuak ez dute zilegi izanen tasak eta kontribuzio bereziak beste tributurik ordainaraztea.”

Aurrekontuen eta kontuen onespenera dagokionez, araudi indardunak –Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Tokiko Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta haien garatzen dituzten dekretuak– ez du kontzejuen berariazko aipamenik egiten; hori dela eta, toki entitateentzat, oro har, ezarritako araudia izanen zaie aplikatzeko.

Laburbilduta, Kontzejuan ematen diren zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Kontzejua	Mankomunitatea	Beste batzuk
Kontzejuak ematen dituen zerbitzuak				
Kale garbiketa		x		
Parkeak eta lorategiak		x		
Argiteria		x		
Kontzejuko pilotalekua		x		
Hilerria		x		
Udalak ematen dituen zerbitzuak				
Zerbitzu administratibo orokorrak-Infolocal	x			
Hirigintza	x			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	x			
Kontzejuentzako idazkari aholkularia	x			
0-3 urtekoen ikastetxea (Zizur Txikian)				x
Uraren ziklo integrala			x	
Hiri hondakinak			x	
Taxi zerbitzua, eskatuta ematen dena	x			
Kirol eta kultur jarduerak kudeatzea	x			
Udalaren kirol instalazioak (Zizur Txikian eta Azterainen)	x			x
Euskara ikasteko laguntzak				x
Errolda-Erregistro Zibila-Bake Epaitegia	x			
Diru-bilketa exekutiboa	x			

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoak funtsean osagai hauek ditu: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

2014ko ekitaldiko aurrekontua Kontzejuaren 2013ko azaroaren 14ko batzarrean onetsi zen. 2014ko ekitaldiko kontuei dagokienez, 2015eko martxoaren 12an onetsi ziren.

Zizur Zendeako Udalak plantillan "kontzejuetarako idazkaria" deitzen zaion funtzionario bat badauka, zeinak aholku ematen baitie Zendeako kontzejuei aurrekontuaren kudeaketarekin lotutako gaietan eta kontabilitatea eramaten. Lan hori egiten du kontzeju bakoitzeko arduradunek informazioa eta dokumentazioa eskatu ahala.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2014ko kontu orokorraren aurrekontu-likidazioari buruzko iritzia ematen dugu. Bosgarrenean, aurrekontu-likidazio horren laburpen bat ematen dugu. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Kontzejuaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlokoak.

Eranskin bat gehitu dugu 2011tik 2014ra egin eta akatsen bat aurkitu diren ordainketen zerebarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Zizur Zendeako langileei lan hau egiteko eman diguten laguntza-rengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Paternaingo Kontzejuaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Paternaingo Kontzejuaren aurrekontu-likidazioaren egoera-orriak, 2014ko ekitaldikoak, bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, aurrekontua dela-eta egindako kudeaketarekin.
- Zenbateraino bete den 2014an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.
- Kontzejuaren finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n.

Txosten honetan, Kontzejuak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzen jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

III. NORAINOKOA

Honako hauek aztertu ditugu: aurrekontu-likidazioaren egoera-orriak, aurrekontu-emaitzaren egoera-orria, diruzaintzaren egoera-orria, zor biziaren egoera-orria, eta 2013ko eta 2014ko itxi-tako aurrekontuetako gastuak eta diru-sarrerak azaltzen dituen egoera-orria. Beharrezkotzat jo den neurrian, 2011ko eta 2012ko ekitaldietako gastuak eta diru-sarrerak ere aztertu ditugu.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazio- edo auditoria-printzipio nagusiak" izeneko ISSAI-ES 400 araua. Lanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaketa-probak eta prozedura tekniko guztiak bildu dira.

Zehazki, Kontzejuaren aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolako alderdi nabarmenenak.

IV. IRITZIA

Paternaingo Kontzejuaren 2014ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioa fiskalizatu dugu. Likidazio hori txosten honetako V. atalean jaso dugu laburbilduta.

KONTZEJUAREN ERANTZUKIZUNA

Kontzejuburua da kontu orokorrak aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Kontzejuaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Kontzejuak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarrizko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratortzen da.

IV.1. 2014ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI BURUZKO IRITZI FINANTZARIOA

IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

Ez dira ez kontabilizatu, ez ordaindu pilotalekua eraikitzekeo eskatutako mailegua amortizatzeko azken hiru kuotak; hori dela eta, erregistratutako gastua egiazkoa baino 4.500 euro inguru txikiagoa da.

IRITZIA

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako aurrekontu-likidazioak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, Paternaingo Kontzejuak 2014ko ekitaldiko kontuei buruz egin duen aurrekontu-kudeaketa, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Kontzejuak egindako jarduketak, 2014ko ekitaldiari dagozkionak, bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, aplikatzekoak diren arauekin, baina gabezia batzuk atzematen dira gastu batzuen justifikazioa dela eta, txosteneko VI.14 atalean aipatu bezala.

IV.3. KONTZEJUAREN 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Kontzejuaren 2014ko ekitaldiko aurrekontua 2013ko azaroaren 14an onetsi zuen Kontzejuaren Batzarrak. Aurrekontu horrek bakoitzak 62.790 euro egiten duten gastuak eta diru-sarrerak jasotzen ditu, aurrekontu-aldaketarik gabe, eta kopuru bereko behin betiko aurreikuspenak daude.

Aitortutako betebeharrak 59.364 eurokoak izan dira eta ehuneko 95eko betetze-maila izan dute. Kapituluak honako betetze-mailak izan dituzte: langile gastuak (ehuneko 80); ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (ehuneko 105); finantza-gastuak (ehuneko 67); transferentzia arruntak (ehuneko 81); finantza-pasiboak (ehuneko 72). Ondasun arruntak eta zerbitzuen gastuak gastuen ehuneko 75 egiten dute. Ez dago inbertsio-gasturik.

Aitortutako eskubideek 48.992 euro egiten dute, eta betetze-maila % 78koa izan da. Tasek likidazio-gradu oso txikia izan dute (ehuneko 13koa), ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduek bezalaxe (ehuneko 31); transferentzia arruntak ia guztiz bete dira (ehuneko 92). Nabarmendu beharra dago transferentzia arruntak Kontzejuaren diru-sarreraren ehuneko 95 direla.

Kontzejuak 2014an aurreko ekitaldian baino ehuneko 32,5 gutxiago gastatu du; jaitziera hori heldu da, funtsean, ondasun eta zerbitzuetan kontabilizatutako gastuaren jaitzieratik, 14.676 eurokoa (nagusiki, higiezinaren kontserbaziorako gastuetan, jaietako gastuetan eta askotariko gastuetan), eta pilotalekuko maileguaren amortizazioko eta interesetako hiru kuota ez kontabilizatzen eta ez ordaintzen (4.500 euro inguru izan dira).

Bestalde, diru-sarrerak ehuneko 7,5 txikiagoak izan dira, bereziki tasen bidezko diru-sarrerak (-2.196 euro) eta transferentzia arruntak (-1.086 euro) jaitsi direlako.

Zizur Zendeako Udalarekiko hitzarmenaren bitartez, ezarrita dago Udalak Kontzejuko argiteria gastuetarako ematen duen diru-laguntza. 2014an, 18.836 euro dira, eta Kontzejuak 2012an argiteria publikoan egin zuen gastuaren ehuneko 100ari dagokio. Hau da, Kontzejuari bi urteko atzerapenarekin ari zaizkiola ordaintzen gastu horiek.

Ondoren, Paternaingo Kontzejuak aurkeztutako aurrekontu-likidazioen bilakaera, aurrekontu-saldoak eta diruzaintzakoak aurkezten ditugu, 2007tik hasita.

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Deskribapena	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	5.272	4.500	5.295	6.048	3.349	3.324	3.149	953
4. Transferentzia arruntak	49.893	36.031	86.343	27.129	41.854	44.621	47.555	46.469
5. Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprob.	1.835	5.290	4.618	2.989	4.883	4.047	2.250	1.570
6. Besterentzeak Inbertsio errealak	212.000							
7. Kapital-transferentziak	9.011	14.110	13.943	15.904				
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	278.010	59.931	110.199	52.070	52.086	51.992	52.954	48.992

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Deskribapena	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1. Langile-gastuak							7.274	560
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	32.537	58.280	41.258	63.028	44.722	45.137	59.386	44.710
3. Finantza-gastuak	11.709	12.198	7.242	4.254	4.367	4.723	2.157	1.339
4. Transferentzia arruntak	391	6.608	435	541	565	580	3.214	584
6. Inbertsio errealak	67.526	13.725	13.041	3.483	0	18.452	0	0
7. Kapital-transferentziak								
8. Finantza-aktiboak								
9. Finantza-pasiboak	10.633	10.759	13.051	14.598	14.620	14.761	15.971	12.170
Guztira	122.796	101.570	75.027	85.905	64.274	83.654	88.002	59.364

Guztira

Saldoa	155.214	-41.639	35.172	-33.835	-12.188	-31.662	-35.048	-10.372	25.642
---------------	----------------	----------------	---------------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------	---------------

Diruzaintzako saldoa	155.036	108.778	138.916	104.047	94.503	74.814	40.268	15.816
-----------------------------	----------------	----------------	----------------	----------------	---------------	---------------	---------------	---------------

Zor bizia 2008an 249.511 eurokoa izatetik 2014an 159.916 eurokoa izatera pasa da. Saldo horretan ez dira jasotzen 2014an muga-egunera iritsitako hiru kuotak, diruzaintzan dirurik ez egoteagatik ez zirenak ez kontabilizatu, ez ordaindu. Era berean, 2015eko azaroan, 2015eko amortizazio-kuotak ordaindu gabe zeuden.

Hona Kontzejuaren 2014ko ekitaldirako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horren 2013ko ekitaldikoarekiko alderaketari buruzko adierazleak (eurotan):

Adierazleak	2014	2013	Aldea	Aldea (%)
Aitortutako betebeharrak, guztira	59.363	88.028	-28.665	-32,5
Aitortutako eskubideak, guztira	48.992	52.954	-3.962	-8,1
Gastuen betetzea (%)	% 94	% 97	-3	
Diru-sarreraren betetzea (%)	% 78	% 58	20	
Ordainketak (%)	% 95,9	% 83	12,9	
Kobratutakoa (%)	% 100	% 100		
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	47.194	72.057	-24.863	-34,5
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	45.854	69.900	-24.046	-34,4
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	0	0	0	0
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	12.170	15.971	-3.801	-23,8
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	48.992	52.954	-3.962	-7,5
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	953	3.149	-2.196	-70
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	0	0	0	-69,7
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	% 95	% 90	5	
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	% 1,9	% 5,9	-4	
Aurrekontu-superabita/defizita	-10.372	-35.075	24.703	-70
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa (1-7 diru-sarrerak ken 1-7 gastuak)	-10.372	-35.075	24.703	-70
Aurrekontu-emaizta doitua	-10.372	-35.075	24.703	-70
Aurrezki gordina	1.798	-19.103	20.901	-109
Finantza-zama (3.etik 9.era) (*)	13.509	18.127	-4.618-	-25,5
Aurrezki garbia	-10.372	-35.074	24.703	-118
Zorpetze mailaren ehunekoa (finantza-zama/diru-sarrera arruntak) (*)	% 27,57	% 34,23	-6,6	
Zorpetze muga (%)	% 6,40	% -32	-25,6	
Zorpetze-ahalmena (%)	% -20,88	% -66,23	-43,35	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	12.201	22.604	-10.403	-46
Kontzejuaren zor bizia	159.916	172.086	-12.170	-7
Zor bizia biztanleko	448	479	-31	-6,5
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	% 326	% 325	1	
Zor bizia / Aurrezki gordina	51	Ez da apli- kagarria		

(*) Finantza-zaman ez daude gastu gisa kontabilizatuta pilotalekuko mailegutik ordaindu ez diren hiru kuota; haiek kontatuta, 2014ko finantza-zama 18.000 eurokoa izanen zen, eta zorpetze-maila, berriz, ehuneko 36,75ekoa.

Azken bost ekitaldietan, Kontzejuak aurrekontu-defizitak izan ditu, eta bere defizita kroniko bihurtu da; hori dela eta, diruzaintza-gerakinarekin finantzatzen joan da, ia agortzeraino. Diruzaintzak 2007an izan zuen goreneko kopurua, 155.036 euro, bi lursailen besterentzeari esker (212.000 euro ginen zuten); 2014an, berriz, 15.816 eurokoa zen.

Gaur egun, diru-sarrera gehiago sortzeko gaitasun oso eskasa du edo ia inolako gaitasunik ez. 2004an pilotalekua egiteak kontratatutako mailegua amortizatzeko egungo kuotei ere ezin die aurre egin.

Azken zortzi urteetan (2007-2014), aurrezki gordina hiru aldiz negatiboa izan da; urteko batez bestekoa -2.007 eurokoa izan da. Aurrezki garbia sei ekitalditan gertatu da; urteko batez bestekoa -15.391 eurokoa izan da.

Zorpetze gaitasunik ez dute, zeren eta adierazlea negatiboa baita, eta zorpetze-maila, berriz, bere mugetatik oso gora dago.

Laburbilduz, 2007an lortutako diru-sarrerak, lursailen salmentaren ondoriozkoak, diruzaintzako gairik bat sortu zuten, eta harekin hurrengo urteetako defizitak finantzatu dira, baina gaur egun, ezin zaio aurre egin azkeneko ekitaldietan izan den gastu-bolumenari.

Logikoa denez, diru-sarrera berezirik lortu ezean, egoera ekonomikoaren konponbideak eskatzen du diru-sarrerak handitzea eta gastuak gutxitzea. Hori dela eta, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Pilotalekuaren mailegua birnegoziatzea, halako moduz non urtek kuotak gutxitu ahalko diren.
- Udalarekin negoziatzea aurreko urteetako argiteria publikoaren gastuari dagozkien kopuruen kobrantza. Horri dagokionez, aipatu behar da ekitaldi horiei dagokien kopurua ia 40.000 eurokoa dela.
- Udalarekin negoziatzea gastu hori ekitaldi bakoitzean zuzenean har dezala bere gain, horrela saihestuko baita Kontzejuak bi urtez kopuru horiek aurreratu behar izatea.
- Kontzejuaren gainerako diru-sarrerek 30.000 euro inguru egiten dute. Baldin eta kontuan hartzen badugu maileguaren ordainketek 20.000 euro inguru egiten dutela, beste 10.000 euro geratuko lirake gainerako gastuetarako (mantentze-gastuak, hornikuntzak eta jaiak). Horri dagokionez, aipatu beharra dago jaietako gastuak, azken urteetan, 13.000 eurotik gorakoak izan direla.
- Kontzejuak kudeatzen dituen kontzeptuengatik kobrantzak handitzea: pilotalekua, sozietatea, jaietarako ekarpenak.

Neurri horiekin edo antzeko beste batzuekin, Kontzejuak lortu behar du baliagarri dauden diru-sarrerekin hartutako gastu-betebeharrei erantzutea.

V. KONTZEJUAREN 2014KO AURREKONTU-LIKIDAZIOAREN LABURPENA

Ondoren, Kontzejuaren 2014ko ekitaldiko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak azalzen ditugu.

V.1. 2014ko EKITALDIKO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

(eurotan)

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutakoaren gain. %
3. Tasak eta beste-lako diru-sarrerak.	7.490	0,00	7.490	953	953	0,00	12,73	1,3
4. Transferentzia arruntak	50.300	0,00	50.300	46.467	50.300	0,00	92,38	94,8
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	5.000	5.000	5.000	1.570	1.570	0,00	31,4	3,2
6. Inbertsio errealak besterentzea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
7. Kapital-transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
8. Finantza-aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
9. Finantza-pasiboen aldea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
Guztira	62.790	0,00	62.790	48.992	48.992	0,00	78,03	100

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutakoaren gain. %
1. Langile-gastuak	700	0,00	700	560	560	0,00	80,0	0,94
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	42.570	0,00	42.570	44.710	42.354	2.356	105,0	75,3
3. Gastu finantzarioak	2.000	0,00	2.000	1.339	1.339	0,00	66,9	2,2
4. Transferentzia arruntak	720	720	720	584	526	58	81,1	0,98
7. Finantza-aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0	0
8. Finantza-pasiboak	16.800	0,00	16.800	12.170	12.170	0,00	72,4	20,5
Guztira	62.790	0,00	62.790	59.363	56.949	2.414	94,5	100

V.2. 2014ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA

(eurotan)

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	48.992	52.954
- Aitortutako betebeharrak	-59.364	-88.029
= Aurrekontu-emaiza	-10.372	-35.075
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak		
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak		
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatutako gastuak	0,00	16.421
= Aurrekontu-emaiza doitua	-10.372	-18.653

VI. KONTZEJUARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, ganberaren honen iritziz Kontzejuak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko ondorio, iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Kontuan izanda kontzejuak kudeaketa ekonomikoa dela-eta dauzkaten berezitasunak, haien jardueraren bolumena eta langilerik ez dutela, ondoren Kontzejuaren kudeaketari buruzko alderdi garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

VI.1.1. Kontabilitate-prozedura

Zizur Zendeako Udalak plantillan "kontzejuetarako idazkaria" deitzen zaion funtzionario bat badauka, zeinaren egitekoa baita Zendeako kontzejuei (zortzi) aholku ematea aurrekontuekin lotutako gaietan eta kontabilitatearen kudeaketan.

Kontzejuetarako idazkariak aurkezten dioten dokumentazioaren arabera egiten du kontabilitatea. Dokumentazioa berandu aurkezten denez, kontabilizatzea ere berandu egiten da.

VI.1.2. Dokumentazioa artxibatzea

Udalak bere artxibo-instalazioak eskaintzen die eskatzen duten kontzejuei. Kontzeju batzuek nahiago izaten dute kontabilitate-dokumentazioa eta ziurtagiriak eraman, behin kontabilizatuta; beste batzuek, ordea, Paternaingo Kontzejuak kasu, hainbat urtetako kontabilitate-dokumentazioa (likidazioak, dokumentuak eta ziurtagiriak) udaletxeko artxiboetan gordetzen dituzte.

VI.1.3 Diruzaintzaren kudeaketa/Egoera finantzarioa

Kontzejuaren banku-kontuetan, baterako sinadura aitortua dute kontzejuburuak eta gordailuzainak, zeinak ordainketak egin eta saldoak kontrolatzen dituztenak baitira. 2014ko ekitaldian, likidezia-arazoak aurkitu dira.

Ordainketak banku-transferentzia bidez, banku-txeke bidez (gutxitan), ordainagiriak helbideratuz eta, azken urteetan gero eta gehiago, eskudiruz ordainduz. Halaber, internet/paypal bidezko ordainketaren bat ere badago. Eskudiruko ordainketa horiek, askotan, zenbateko txiki-koak dira, baina beste batzuetan zenbateko nahiko handiak dira, batez ere jaietako gastuen ordainketari dagokionez. Kopuru hori gehiegi handitu da, eta beheratu egin beharko litzateke.

Ondoren, eskudirutan ordaindutakoaren kalkulua jasotzen duten taula bat ematen dugu:

Ekitaldia	Udalbatzaren kutxa bidezko ordainketa	Betetako gastuen aurrekontua	Ehunekoak
2014	15.451	59.363	26
2013	8.891	88.028	10
2012	8.931	83.653	11
2011	5.492	66.880	8

Iturria: 00000: Udalbatzaren Kutxa kontuaren bidezko ordainketen laburpena.

Paternaingo Kontzejuak, gaur arte, ez du kutxako liburu lagungarriak eramatean, non diru-sarrerak, egindako ordainketen irteerak eta saldoak apuntatuko dituen

Udalbatzaren kutxaren kontabilitate saldoa 9.247 eurokoa da 2014ko abenduaren 31n. Kontabilitatez kanpoko beste dokumentazio batean agertzen da saldo erreala 8.314 eurokoa dela 2015eko urtarrilaren 1ean. Aldea 934 eurokoa da. Erkatze hori da ohikotasunez egiten, eta ez dakigu alde hori zein ekitalditatik heldu den.

Kontzejuak, 2014ko abenduaren 31n, 15.816 euro egiten duen saldoak dauzka, honela banatuak: eskudiruko kutxa (9.247 euro), banku-entitatetako bi kontu korrante (4.699 euro) eta epe finkoko gordailuen kontu bat (1.870 euro).

Diruzaintzako saldoen bilakaera honako taula honetan egiazta daiteke:

Diruzaintzaren egoera-erriak	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Kontuaren deskribapena	Bukaerako izakinak	Bukaerako izakinak	Bukaerako izakinak	Bukaerako izakinak	Bukaerako izakinak	Bukaerako izakinak	Bukaerako izakinak	Bukaerako izakinak	Bukaerako izakinak
Korporazioaren kutxa (eskudirua)	-686,25	-709,6	-709,6	-709,6	-2.351,14	1.086,29	3.321,64	7.487,18	9.246,99
Nafarroako Kutxa/CAIXA	155.722,31	1.393,29	1.393,29	0,00	759,18	-97	0	61,29	-5,19
BCL	0,00	37,27	37,27	21,65					
Nafarroako Rural Kutxa	0,00	3.056,91	3.056,91	19.303,93	13.939,03	228,17	32,68	14.152,72	1.353,10
Nafarroako Rural Kutxa (IPF) (I. eta II.)		105.000,00	105.000,00	120.300,00	91.700,00	0	0	0	0
Targobank. Kontu korrontea					---	785,62	459	-48,06	3.351,00
Targobank (IPF)					---	92.500	71.000	18.615,00	1.870,24
Guztira	20.436	155.036,06	108.777,87	138.915,98	104.047,07	94.503,07	74.813,93	40.268,13	15.816,14
<i>Kontu korrontetan sortutako interesak E/IPF</i>	<i>14,18</i>	<i>3.469,59</i>	<i>3.469,59</i>	<i>2.873,17</i>	<i>1.692,57</i>	<i>2.505,42</i>	<i>2.650,31</i>	<i>815,45</i>	<i>132,26</i>
<i>Banku-komisioetako gastuak</i>				<i>68</i>		<i>313</i>	<i>103</i>	<i>832</i>	<i>774</i>

2007ko ekitaldian, Kontzejuak hiri-lursail batzuk saldu eta 212.000 euro eskuratu zituen. 2007ko abenduaren 31n, 155.036 euroko diruzaintza-saldoa zeukan.

Ondoz ondo gertatu diren aurrekontu-defizitek eragin dute diruzaintza-gerakin positiboak, 2007tik mantendutakoak, jaisten joatea.

Pilotalekurako mailegua 2004an kontratatu zen, 300.000 euroko prezioan. Hura kitatzeko data, 2024ko urtarrilaren 29rako aurreikusi zen. Interes tasa aldakorra du, ehuneko 2,279koa (2012), ehuneko 1,090koa (2013) eta ehuneko 1,069koa (2014). 2014an igorritako amortizazioen eta interesen kuota hilean 1.500 eurokoa zen, gutxi gorabehera. 2014-12-31n, amortizatu gabe dagoen zenbatekoa 159.916 eurokoa da.

VI.1.4 Gastuaren dokumentu-justifikazioa

2011. urtetik 2014. urtera bitarteko aurrekontu-likidazioen dokumentazioa dela-eta egindako azterketaren barruan, arreta berezia eskaini diogu gastuak faktura izateari, edo, bestela, ordainagiria edo transferentziaren edo antzekoaren banku dokumentua izateari. Halaber, begiratu diogu kontabilitate-dokumentuak gastuaren berriazko izaera edukitzeari.

Honako hauek izan dira aurkitutako gabeziak:

Ordaintzeko betebeharrari buruzko dokumentuak	2011	2012	2013	2014	Guztira
Ekitaldiko dokumentuen kop.	196	238	359	275	1.068
Justifikazio-arazoren bat duten dokumentuen kopurua	9	26	39	32	106
Zenbatekoak					
Fakturarik gabe eta ordainagiririk gabe	1.738	4.273	6.199	8.086	20.296
Fakturarik gabe eta ordainagiria sinatua dutenak		2.750	4.397	1.505	8.652
Ordainagiri sinatu gabearekin		5.256	5.190	1.550	11.996
Banku-transferentziaren ordainagiria edo ordainagiri helbideratua	1.319	1.168	3.250	3.297	9.034
Fakturarik ez duten dokumentuan zenbatekoak, guztira	3.057	13.447	19.036	14.438	49.978

Hau da, 2014an, ordaintzeko betebeharra dela-eta egindako 275 dokumentutatik, 32tan justifikazio-gabeziaren bat dago. Fakturarik ez duten dokumentuei dagokien zenbatekoa 14.438 eurokoa da (32 ordainagiri dira, eta egindako gastuaren ehuneko 24). Eranskinean, ordainketa horien urtez urteko zerrenda bat ageri da.

Horietatik, ordainagiria dutenak 14 dokumentu dira, eta 8.086 euro egiten dute. Sinatu gabeko ordainagiria dutenak 4 dokumentu dira, eta 1.550 euro egiten dute. Jasotzaileak sinatutako ordainagiria dutenak 3 dokumentu dira, eta 1.505 euro egiten dute. Azkenik, banku-transferentziaren ordainagiria dutenak edo helbideratutako ordainagiria dutenak 11 dira, eta 3.297 euro egiten dute.

Kasuistika hori bereziki gertatzen da herriko jaietako ekitaldietako gastu eta ordainketen justifikazioan, bai eta mantentze- eta hornikuntza-gastu txiki batzuetan ere.

Ez dugu aurkitu 2014ko ekitaldiko fakturarik, 2015eko aurrekontuari egotzitako zenbateko aipagarriak dutenik, pilotalekuaren maileguaren urriko, azaroko eta abenduko kuotak alde batera utzita. Baina horiek ere, 2015eko kuotekin batera, 2015eko azaroan aurrekontu gastu gisa kontabilizatzeko eta ordaintzeko zeuden.

VI.1.5 Inbentarioa

Kontzejuaren ondasunen inbentarioa duela hamar urte baino gehiago egin zen, eta gaurkotzeko eta formalizatzeko dago. Katastroan, 2015ean, ondasun higiezinak 945.325 euroan baloratuta ageri dira.

VI.2. LANGILEAK

Kontzejuak ez du langilerik plantillan. 2013ko ekitaldian, kapitulu honetako gastuak 7.274 euro egin zuen: 2.500 euro 2011, 2012 eta 2013. urteetako dieta eta esker-sariei dagozkie eta 4.774 euro, berriz, zerbitzu anitzetako peoi baten zenbait hilabetetako kontratuari; azken horretarako, Politika Sozialetako Departamentuaren diru-laguntza jaso zen.

2014an, langile-gastua 560 eurokoa izan da, eta epez kanpo Gizarte Segurantzari egindako kotizazioetatik datozen atzerapen eta errekaragui dagozkie. Nominak gestoria baten bitartez kudeatu ziren.

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak 44.710 euro egin dute 2014an, guztira; kopuru hori ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 75 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 95 da. 2013. urtearen aldean, 14.676 euro —ehuneko 25— murriztu dira.

Kapitulu honetako gastuen betetze-maila, kontusailaren araberakoa, eta 2013ko ekitaldian izan zenarekiko alderaketa ondoko taula honetan adierazten da:

(eurotan)

2. kapitulua	2014	2013	Aldea (%)
Higiezinaren kontserbazioa eta konponketak	3.026	8.248	-63
Bide eta kaleen kontserbazioa	2.714	200	1.684
Bulegoko materiala	148	369	-60
Material tekniko berezia	0	1.023	
Kontzejuaren etxeko elektrizitate kontsumoa	847	923	-8
Argiteria publikoaren kontsumoa	20.100	21.225	-5
Pilotalekuko elektrizitate-kontsumoa	1.172	1.036	13
Kontzejuaren etxeko ura eta zaborra	372	314	18
Kilometrajea, gasolina	0.00	235	-7
Komunikazioak-telefonoa	570	540	5
Aseguruak	0	564	
Aholkularitza juridikoa eta teknikoa	1.177	0	
Banku-komisioak	774	832	-7
Herriko jaiak	13.062	19.416	-33
Zehaztu gabeko eta ustekabeko gastuak	747	4.487	-83
Guztira	44.710	59.413	-24,7

2013ko eta 2014ko kontabilitate-dokumentu guztiak aztertu ditugu.

Gastuen azterketari dagokionez, ikusten da kapitulu horretan ehuneko 25eko jaitsiera gertatu dela. Jaitsiera garrantzitsuena da hori zeren eta berez 2014an ekitaldiko gastu guztien ehuneko 75,3 egiten baitu.

Ondoren, kontusail aipagarrienak komentatuko ditugu:

Argiteria publikoaren gastuak (20.100 euro): Kontzejuaren eskumenetako bat da. Soilik kontusail horrek Kontzejuaren gastu guztien ehuneko 34 egiten du, eta gastu arrunten ehuneko 49.

Argiteria publikoaren arloko gastu hori osorik itzultzen du Udalak, kontzeju guztien argiteria gastuen ehuneko 100eko diru-laguntza emateko Zizur Zendeako Udalarekin egindako hitzarmenaren eraginez. 2007ra arte, diru-laguntza hori urtea bukatuta ordaintzen zen. 2010ean, berriz, ez zen ordaindu, eta ordutik bi urte igarota ordaintzen da.

Udalak bere gain hartzen ditu mantentze arrunteko zenbait gastu (matxurak, argiak birjarzea eta abar).

Herriko jaietako gastuak (13.062 euro): Paternaingo kasuan, 2014an 13.062 euro egin zuten (2013an, berriz, 19.416 euro izan ziren), eta guztizko gastuen ehuneko 22 eta gastu arrunten ehuneko 28 dira.

2007tik 2014ra bitarte kontzeptu hori dela-eta egindako gastuen batez bestekoa urteko 14.066 eurokoa izan da. Gastuaren jaitsiera aipagarria egin daitekeen kontzeptu bakarretakoa da. Horri dagokionez, 2013. jaietako gastua ehuneko 33 murriztu zen.

Higiezinaren kontserbazioa eta konponketak: Kontusail horrek gastu guztiaren ehuneko 6 egiten du, eta 2013aren aldean ehuneko 63ko jaitsiera dago.

2014an, honakoak jasotzen ditu: Kontzejuko lokalen garbiketa gastuak jasotzen dira (1.347 euro), era askotako lanabesak eta materialak; web-orriaren ostatatzea eta domeinu-erreserba (405 euro) eta abar. Kontusail honetan 9 ordainketa daude, baina kontabilitate-dokumentuari behar beste dokumentazio erantsi gabe.

VI.4. FINANTZA-GASTUAK

Finantza-gastuak 1.339 eurokoak dira (2.157 euro izan ziren 2013an).

Aurreko iruzkinetan aipatu den bezala, pilotaleku estalia eraikitzeke 2004ko urtarrilaren 20an hitzartutako maileguaren (300.000 euro) interesen amortizazioari dagozkio. Ez dira sartu urteko azken hiru kuotetako interesak (472 euro inguru).

VI.5. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arrunten gastuak ez dira oso aipagarriak: 584 euro egiten dute 2014an. Gastu arruntaren ehuneko 1era ez dira iristen. 2013ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 81eko jaitsiera dago.

Honakoa da transferentzia arruntengatiko 2013ko eta 2014ko gastuak alderatzeko taula, partidaz partidakoa:

4. kapitulua	(eurotan)		
	2014	2013	Aldea (%)
Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa	108	118	-8
Aralarko Aingerurako dohaintza		300	
Elizarako diru-laguntza	476	2.797	-83
Transferentzia arruntak	584	3.097	-81

Elizarako diru-laguntzaren kontzeptuan, eraikinaren argizatzeari dagozkion hileko fakturen zenbatekoa jasotzen da. Aralar Aingerurako dohaintza 150 eurokoa da. 2013. urtearen aldean, diru-laguntza horiek ehuneko 81 jaitsi dira.

VI.6. INBERTSIOAK

Ez 2014an, ez 2013an ez da inbertsiorik egin. 2004an, pilotaleku estalia eraiki zen. 2015ean 511.511,57 euroko balioa eman zitzaion katastroan. Hura finantzatzeko, 300.000 euroko mailegu bat egin zen, 2024an amaituko zena.

Ohar gisa, azaldu beharra dago 2007an pilotalekua hobetu eta egokitzeko fakturak ordaindu zirela, 30.585 euro egiten zutenak, eta aurrekontuz kanpo kontabilizatu zirela aplikatzeko zeuden gastuen gisara.

VI.7. FINANTZA-PASIBOEN GASTUAK

Finantza-pasiboen gastuek 12.170 euro egin zuten 2014n; 2013an, berriz, 15.971 euro egin zuten.

Aurreko iruzkinetan aipatu den bezala, 2004ko urtarrilaren 20an pilotaleku estalia eraikitzeke hartutako mailegu baten printzipalaren (300.000 euro) amortizazioari dagozkio.

Kontzejuek, diruzaintza-arazoak tarteko, ez ditu ez kontabilizatu, ez ordaindu 2014ko urritik abendura doazen hiru hilabetei dagozkien kuotak. Kuota horiekin, kontusailaren zenbatekoa 16.210 eurokoa izatera iritsiko zen.

Gainerako kuotak ere, gutxienez ere 2015eko azarora arte, ezin izan dira ordaindu. Entitatearekin izapideak egiten ari da mailegu hori birfinantzatzeko.

VI.8. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

VI.8.1. Alderdi orokorrak

Kontuan hartu beharra dago kontzejuek baliabide oso mugatuak dituztela diru-sarrerak sortzeko, z eren eta hiri- eta landa-kontribuzioko zergak, EIOZa eta JEZa eta abarrekoak, udalen baliabideak baitira.

Haien diru-sarrera nagusiak Toki Ogasunen Funtsetik heldu direnak dira (ehuneko 49) eta Zizur Zendeako Udalarekin, argiteria publikoaren gastuak itzultzeko, daukan hitzarmenen bidez lortutako diru-laguntzak (ehuneko 38).

Zizur Zendeako Udalak, hitzarmen bidez, bere kontzejuei kontzeju horietan bertan biltzen duen EIOZ zergaren ehuneko 20 lagatzen die. 2012tik, ez da inongo diru-sarrerarik izan kontzeptu hori dela eta.

Aurrekontuan jasotakoaren eta Kontzejuak kontzeptu hori dela-eta bildutakoaren arteko aldea honako taula honetan azaldu dugu:

EIOZaren lagapenen likidazioa, 2006-2014	Hasierako aurrekontua	Likidatutako aurrekontua	Desbideratzea
2006	30.000	13.988	-16.012
2007	20.320	2.384	-17.936
2008	20.070	7.777	-12.293
2009	3.590	18.087	14.497
2010	42.492	4.830	-37.662
2011	4.180	210	-3.970
2012	11.719	0	-11.719
2013	0	0	0
2014			
Desbideratzea, guztira	132.371	47.276	-85.095

Ikus daitekeen bezala, azken urteetan ez da diru-sarrerarik izan EIOZa dela-eta.

Transferentzia arrunten bidezko diru-sarreraren mendetasuna oso handia da, hurrengo taulako datuetan ikusten den bezala:

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Diru-sarrerak:	278.010	59.930	110.199	52.070	50.086	51.992	52.954	48.992
Gastuak	122.795	101.569	75.027	85.905	64.274	83.654	88.002	59.364
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	56.999	45.821	96.256	36.166	52.086	51.992	52.954	48.992
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	44.637	77.085	48.935	67.823	49.654	50.440	72.057	47.194
Diru-sarreraren kapitulua, 4.a/aurrekontuaren guztizkoa Diru-sarrerak	% 18	% 60	% 78	% 52	% 84	% 86	% 90	% 95
Toki Ogasunen Funtsa / 4. kapitulua, guztira	% 7	% 35	% 20	% 42	% 43	% 42	% 42	% 49
Udalaren diru-laguntza Argiteria / 4. kapituluaren guztizkoa	% 5	% 0	% 35	% 0	% 31	% 40	% 35	% 38
Toki Ogasunen Funtsa+Udalak argiteriarako emandako diru-lag./4. kapituluaren guztizkoa	% 70	% 58	% 71	% 81	% 89	% 95	% 86	% 93
Toki Ogasunen Funtsa+Argiteriarako diru-lag./Diru-sarreraren aurrekontuaren guztizkoa	% 13	% 35	% 55	% 42	% 74	% 81	% 77	% 88

Transferentzia arrunten ehuneko 93 Toki Ogasunen Funtsetik heldu dira, bai eta Udalak argiteria publikorako ematen duen diru-laguntzatik ere: Udalaren diru-laguntza guztien ehuneko 88 dira.

Ondoren aztertuko dugu aurrezki gordinak eta garbiak nolako bilakaera izan duten 2007-2014 aldian.

2007-2014 aldiko diru-sarrerak, gastu arruntak eta aurrezki gordina eta garbia.

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	% 14/13	Batez bestekoa 2011-2014	Batez bestekoa 2007-2014
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	56.999	45.821	96.256	36.166	52.086	51.992	52.954	48.992	-7	51.506	55.158
Gastu arruntak (1etik 4ra bitarteko kapituluak)	44.637	77.085	48.935	67.823	49.654	50.440	72.057	47.194	-35	54.836	57.228
Aurrezki gordina	12.363	-31.265	47.321	-31.657	2.432	1.552	-19.103	1.798		-3.330	-2.070
Aurrezki garbia	1.729	-42.024	34.270	-46.255	-12.189	-13.210	-35.075	-10.372		-17.711	-15.391

Ikusten den bezala, 2011-2014 aldi osorako urteko batez besteko aurrezki gordina negatiboa izan da, urtean -3.330 eurokoa (2007-2014aldirako -2.070 eurokoa izanen zen). Finantza pasiboak kontuan hartu eta haiek kentzen baititugu, 2011-2014 aldirako batez besteko aurrezki garbia urtero negatiboa izanen litzateke, -17.711 eurokoa (2007-2014 aldirako, urtean batez beste -15.391 eurokoa izanen litzateke).

VI.8.2. 2014ko diru-sarreraren aurrekontu likidazioa

Ondoren, 2014ko kontusailen eta haien eta 2013koen arteko alderaketaren xehakatzeari eginen dugu:

(eurotan)

Diru-sarreraren kontusailak	DRN 2014	DRN 2013	2014/2013 aldea (%)
Telefónicaren kanona	597	763	
Lurraren, hegalaren eta lurrazpiaren erabilerarengatiko tasa	356	2.387	
Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak, guztira	953	3.149	-70
Politika sozialeko diru-laguntzak	--	4.214	
Estatuaren tributuetako partaidetza	1.273	--	
Toki ogasunen funtsa	24.170	22.410	
Udalak argiteria publikorako emandako diru-laguntza	18.836	18.274	
Enpresa pribatuak	550	150	
Familiak	240	1.740	
Sozietatearen itzulketa	1.400	766	
Transferentzia arruntak guztira	46.469	47.555	-2,3
Banketxeetako kontuen korrituak	132	814	
Herri-lurretako lursailen errentamendua	1.438	1.435	
Ondare bidezko diru-sarrerak, guztira	1.510	2.250	-30
Guztira	48.992	52.954	-7,5

2014an, aitortutako eskubideak 48.992 eurokoak izan dira: 2013an aitortutako eskubideen aldean ehuneko 7,5eko jaitsiera egon da. 2010-2014 aldirako aitortutako eskubideen batez bestekoa (aldi horretan ez da kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerarik) 51.218 eurokoa izan da.

Betetze-maila ehuneko 78koa izan da, eta altuenak IV. kapituluak (transferentzia arruntak) izan dira, ehuneko 92,38ko betetze-maila izan baitute.

Zizur Zendeako Udalarekiko hitzarmenaren bitartez, ezarrita dago Udalak Kontzejuko argiteria gastuetarako ematen duen diru-laguntza. 2014an, 18.835,83 euro dira, eta Kontzejuak 2012an argiteria publikoan egin zuen gastuaren ehuneko 100ari dagokio.

Aurrez iruzkindu dugun bezala, diru-laguntza bi urteko atzerapenarekin ematen da.

Banku-kontuen interesengatiko diru-sarrerak 132 eurokoak izan dira 2014an. Azken urteetan jaitsiera progresibo bat gertatu da batera gordailuetan eta errentagarritasun orokorrean. Gainera, kontusail honek biltzen ditu epe finkoko ezarpenetako gordailuetako epeen baliatze aurreratuak.

Egindako lanaren ondorioz, honako hau gomendatzen dugu:

- *Bideragarritasun plan bat egitea, gastuak gutxituz eta diru-sarrerak handituz, halako moduz non ez den aurrekontu-defizit handiagoa sortuko. Horri dagokionez, Udalaren eta Kontzejuen arteko harreman finantzarioen plangintzarako onuragarria litzateke harreman horiek modu egonkorrean ezartzea, behar diren akordioen bitartez, halako moduz non alde bakoitzak aurrez ezagutuko dituen zein betebeharrak eta eskubide dauzkan, araudian ezarritakoaz kanpo beren borondatez hartutakoak.*

- *Udal-inbentarioa onartzea ea gaurkotzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta egoera-balantzean kontabilitateko ibilgetuarekin berdinkatzea eta egunean jartzea erraztuko duena.*

- *Datu aipagarri guztiak diru-sarreraren/kobrantsaren dokumentuan jasotzea.*

- *Kontzejuaren gordailuzaintza kutxako liburu osagarri batean eramatea, eta eskudiruko sarrerak eta irteerak jasotzea, kontrola eta geroko kontabilizatzea errazteko.*

- *Saldo-berdinkatzeak aldizka egitea, bereziki Kontzejuko kutxaren kontabilitate-saldoaren eta eskudiruko saldo errealearen artean.*

- *2014-12-31n Kontzejuaren kutxaren kontabilitate-saldoaren eta saldo errealearen artean ohartutako aldea erregularizatzea (933,94 euroko aldea da), eta behar den erregularizazioa egitea.*

- *Kontabilizatze osoa egunean eramatea, ticketak ez ahazteko edo galtzeko, eta kontzejutarako idazkariari kontabilitatea eramateko behar den informazio eta dokumentazio guztia ematea.*

- *Ordaintzeko edo kobratzeko betebeharrari buruzko agiriei gehitzea behar diren fakturak, jasotzaileak sinatutako egiaztagiri edo ordainagiriak eta abar. Halaber, behar beste informazio sartzeko gastuen eta kobrantzen izaerari eta ezaugarriari buruz.*

- *Jaietako gastuak gehitzea "laburpeneko eguneroko-orri" batean, honako zehaztasunak jasota: kontzeptua, jasotzailea, fakturaren zenbakia, ordain-agiria eta data eta ordainketaren data.*

- *Garbiketarako kontratua egitea eta ordainketa guztiak dokumentatzea, hilabete bakoitzeko ordu-kopurua, atxikipenak, kasua bada eta abar.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

ERANSKINAK

24

2011. URTEA

ORDAINTZEKO BETEBEHARRAK, JUSTIFIKATZIOAN GABEZIAK DITUZTENAK: FAKTURARIK GABE, ORDAINAGIRIRIK GABE, SINATUTAKO ORDAINAGIRIRIK GABE

Agiariren zk.	Ordainketa- ren data	Hirugarren inter- resduna	Kontzeptua	Zenbate- koa	Ordainbidea	Ordainagiri- rik gabe	Sinatuta gabeko ordainagi- ria	Sinatutako ordainagiri- Beste egiaz- tagiri batzuk	Ordainagiritako oharpe- nak/oharrak
25	2011/03/10	T.U.G.	Lokala garbitzea 2010eko irailan, urrian eta azaroan	450	Nafarroako Rural Kuitxa			BTA	T.U.G.i egindako transferen- tzia
70	2011/05/28	Discomovil Even- tos	Herriko jaietako ekitaldiak	900	KUTXA	OG			
82	2011/06/14	T.U.G.	Kontzejaren lokalak garbi- keta	254	Nafarroako Rural Kuitxa			BTA	T.U.G.i egindako transferen- tzia
84	2011/06/16	Askotarikoak	Herriko jaietarako ogia	80	Nafarroako Rural Kuitxa			BTA	
135	2011/09/23	T.U.G.	Lokalen garbiketa	276	Nafarroako Rural Kuitxa	OG			T.U.G.i egindako transfe- rentzia
137	2011/09/28	M.M.G	Herriko jaietako garbiketa	300	Nafarroako Rural Kuitxa	OG			
184	2011/12/16	T.U.G.	Lokalaren garbiketa	312	Nafarroako Rural Kuitxa	OG			
192	2011/07/29	Sumalin S.L.	2011/172 faktura	85	Nafarroako Kuitxa			BZ	Haur parkeen egilea
193	2011/11/02	Askotarikoak	San Martinak	400	KUTXA	OG			
Guztira				3.057					

Kodeen legenda:

- OG Ordainagirik gabe
- SO Sinatutako ordainagiria
- SGO Sinatuta gabeko ordainagiria
- BTA Banku Transferentziarako Agindua
- BZ Ordainagiria helbideratzearen ondoriozko

2012. URTEA

25

ORDAINTEKO BETEBEHARRAK, JUSTIFIKATZIOAN GABEZIAK DITUZTENAK: FAKTURARIK GABE, ORDAINAGIRIRIK GABE, SINATUTAKO ORDAINAGIRIRIK GABE

Agiriaren zk.	Ordainketaren data	Hirugarren interesduna	Kontzeptua	Zenbatekoa	Ordainbidea	Ordainagiritik gabe	Sinatuta gabeko ordainagiria	Sinatutako ordainagiria/ Beste egiaztagiri batzuk	Ordainagiritako oharpe-nak/oharrak
237	2012/05/30	Askotarikoak	San Martinetako afaria	450	Kutxa	OG			
236	2012/05/30	Askotarikoak	Jaietako zerbitzari-zerbitzua	300	Kutxa	SGO			Ordainagiriaren erreferentzia: jasotzailearen izena eta tel. zk.
235	2012/05/30	DJ	Herriko jaietako musika	2.050	Kutxa		SO		Ordainagiriko erreferentzia: 2012ko Jaiak
234	2012/05/30	Jotariak	Herriko jaietako ekitaldiak	700	Kutxa		SO		Erreferentzia: jotariak
233	2012/05/30	Askotarikoak	Ogia eta izotza	150	Kutxa	SGO			Supermerkatua
232	2012/05/30	Askotarikoak	Zezenzuzkoaren eramailentzako esker-sariak	120	Kutxa	SGO			Ordainagiriko erreferentzia: izenak (U.B. eta P.N.)
231	2012/05/30	UnoMasUno	Herriko jaietako afaria	2.436	Kutxa	SGO			Ordainagiriko erreferentzia: izena (C.S.) eta tel. zk.
230	2012/05/30	Mcdonalds	Jaietako haurrentzako afaria	250	KUTXA	OG			
226	2012/11/30	Askotarikoak	San Martinak As-kotarikoak	358	Targo Bank	OG			Dokumentuak zehaztu gabe (txeke bidez ordaindua)
195	2012/07/23	Kiaranet (Dinafax)	Inprimagailua (Dinafax)	578	Targo Bank		BZ		Kiaraneten 57. zk.-ko fakturaren zordunketaren erreferentzia
194	2012/07/02	Kiaranet	2011ko eta 2012ko web-domeinua eta ostatazea	590	Targo Bank		BZ		Kiaraneten 12/105. zk.-ko fakturaren zordunketaren erreferentzia
193	2012/10/29	Askotarikoak	Gozokiak	100	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
192	2012/10/29	Askotarikoak	Butanoa eta Kontzejuaren Etxerako tresneria	100	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
190	2012/03/01	Magoa	Herriko jaietako ekitaldiak	1.300	Kutxa; Rural Kutxa		SGO		Ordainagiriaren erreferentzia: 1.300 euro. Jaietako ekitaldia, izena eta telefonoa
189	2012/03/01	Kini y Serrucho	Herriko jaietako ekitaldiak	650	Nafarroako Rural Kutxa		SGO		Ordainagiriko erreferentzia: "Jaietako pailazoak. Ordainketa aurreratua".

Agiriaren zk.	Ordainketaren data	Hirugarren interresduna	Kontzeptua	Zenbatekoa	Ordainbidea	Ordainagiririk gabe	Sinatuta gabeko ordainagiria	Sinatutako ordainagiria/ Beste egiaztagiri batzuk	Ordainagiritako oharpenak/oharrak
186	2012/03/09	Askotarikoak	Butanoa eta mahal-oihalak	200	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
185	2012/03/21	T.U.G.	Pilotalekuaren garbiketa (T.U.G.)	200	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
184	2012/05/04	Askotarikoak	Butanoa eta Kontzejuaren Etxerako tresneria	175	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
183	2012/02/09	T.U.G.	Kontzejuaren etxearen garbiketa	500	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
180	2012/10/29	T.U.G.	Kontzejuaren etxearen garbiketa	300	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
143	2012/08/17	T.U.G.	Kontzejuaren etxearen garbiketa	220	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
101	2012/08/14	Txaranga	Herriko jaietako ekitaldiak	300	Nafarroako Rural Kutxa		SGO		Ohar bat badago, dirua sartu beharreko kontu korrontearen zenbakiarekin, baina ez dago ordainagiririk Banku-transferentzia bidez ordaindua
87	2012/05/24	T.U.G.	Herriko jaietako garbiketa	299	Nafarroako Kutxa	OG		BTA	Banku-transferentziaren ordainagiria gehitu da
51	2012/03/28	Angel de Aralar	Aralarko Aingerurako dohaintza	120	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
31	2012/02/22	Askotarikoak	Kontzejuaren etxeko sukaldean egindako konponketak	750	Nafarroako Rural Kutxa	OG			Ez dago zehaztuta zein konponketa egin diren
18	2012/02/06	T.U.G.	Lokalaren garbiketa	250	Nafarroako Rural Kutxa	OG			Banku-transferentzia
Guztira				13.447					

2013. URTEA

27

ORDAINTEKO BETEBEHARRAK, JUSTIFIKATZIOAN GABEZIAK DITUZTENAK: FAKTURARIK GABE, ORDAINAGIRIRIK GABE, SINATUTAKO ORDAINAGIRIRIK GABE

Agiriaren zk.	Ordainketa-ren data	Hirugarren interesduna	Kontzeptua	Zenbatek	Ordainbidea	Ordainagiri-rik gabe	Sinatuta gabeko ordainagiria	Sinatutako ordainagiria/ Beste egiaztagiri batzuk	Ordainagiritako oharpenak/oharrak
23	2013/03/15	Aralarko Aingerurako dohaintza	Aralarko Aingerurako dohaintza	300	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
40	2013/03/01	T.U.G.	Kontzejuaren etxea garbitzea. 12ko irailetik 13ko otsailera	492	Targo Bank	OG	BTA		Banku Transferentziarako Agindua 12ko irailetik 13ko otsailera
43	2013/03/01	Askotarikoak	Garbiketarako materiala eta butanoa	250	Targo Bank	OG			Kutzazainetik eskudirua ateratzea, ordainagiriarekin
81	2013/06/21	Askotarikoak	Herriko jaietako zerbitzariak	300	Nafarroako Rural Kutxa	OG	SGO		(Ordainagirian honako hau ageri da: "Jai-etako zerbitzaria", izen bat (S.A.) y tel.)
82	2013/06/21	DJ	Herriko jaietako ekitaldiak	200	Nafarroako Rural Kutxa	OG	SGO		(Ordainagirian honako hau ageri da: "Jai-etako DJa 2013". Hartzailerearen izena eta tel.).
83	2013/06/21	Askotarikoak	San Juan suak	100	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
86	2013/06/14	Musika banda	Herriko jaietako ekitaldiak	500	Nafarroako Rural Kutxa	OG	BTA		Banku-ordainagiriaren onuraduna Banda
88	2013/03/27	Askotarikoak	Butanoa eta mahai-oihalak	95	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
92	2013/03/27	S.A.O.	Parrokoarentzako oparria (erretiroa)	200	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
96	2013/12/31	Askotarikoak	Butanoa eta mahai-oihalak	95	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
98	2013/02/12	Cáritas	Dohaintza	800	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
125	2013/06/17		Herriko jaietako jotarien ekitaldia	600	Nafarroako Rural Kutxa	OG			Banku-ordainagiriaren onuradunaren izena ageri da.
169	2013/07/05	T.U.G.	Herriko jaietako garbiketeta	844	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
170	2013/07/26	Askotarikoak	Mahai-oihalak eta uztaileko garbiketeta	400	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
171	2013/09/13	T.U.G.	Kontzejuaren etxearren garbiketeta	225	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
172	2013/05/25	Txaranga	Herriko jaietako ekitaldiak	300	Kutxa	OG	SO		Behar bezalako ordainagiria: izena, NANA eta sinadura

Agiriaren zk.	Ordainketaren data	Hirugarren interesduna	Kontzeptua	Zenbatekoa	Ordainbidea	Ordainagiri gabe	Sinatuta gabeko ordainagiria	Sinatutako ordainagiri/ Beste egiaztagiri batzuk	Ordainagiritako oharpenak/oharrak
173	2013/05/25	Magoa	Herriko jaietako ekitaldiak	1.150	Kutxa		SGO		Ordainagirian honako hau ageri da: Magoak jaietan egindako ekitaldia
189	2013/05/29	DBLEDS	Jaietako musika eta kamioiaren alokairua	2.550	Nafarroako Rural Kutxa			SO	Ordainagiriaren arabera
190	2013/04/30	Askotarikoak	Ontzi-garbigailua konpontzea	110	Nafarroako Rural Kutxa		SGO		Ordainagirian konpontzailearen izena ageri da.
193	2013/05/03	T.U.G.	Kontzejuaren etxearen garbiketa	240	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
192	2013/05/29	Uno Más Uno Eventos y Comunicación	Herriko jaietako afaria	2.580	Nafarroako Rural Kutxa		SGO		Ordainagirian: "Jaietako afaria, 2013". Hartzallearen izena eta tel.
224	2013/12/02	T.U.G.	Kontzejuaren etxearen garbiketa	641	Targo Bank			BTA	T.U. ren aldeko banku-transferentzia egiteko agindua dago
246	2013/12/02	Askotarikoak	Mahai-oihalak	30	Kutxa	OG			Kutxako ordainagiriaren kopia dago eta ordaindu beharreko kontzeptuen eskuz egindako zerrenda dago
247	2013/12/02	Askotarikoak	San Martinetako haurrentzako jolasak	110	Kutxa	OG			Aurreko bera
248	2013/12/02	Askotarikoak	Kontzejuaren etxe-rako materialak	150	Kutxa	OG			Aurreko bera
254	2013/01/08	Askotarikoak	Olentzero eta abarrek	450	Nafarroako Rural Kutxa	OG			Banku-laburpenean 1120896 zk.-ko txekearen bidezko ordainketa ageri da, 13-08-13an
326	2013/10/01	A.G.I. (kontratutako peoia)	Gasolina	50	Targo Bank	OG			Banku-transferentzia bidez ordaindua
330	2013/12/26	Askotarikoak	Olentzero	150	Nafarroako Rural Kutxa	OG			Banku-transferentzia bidez ordaindua
331	2013/12/26	Askotarikoak	Gabonetako otomena	120	Nafarroako Rural Kutxa	OG			Banku-transferentzia bidez ordaindua
332	2013/10/01	A.G.I. (kontratutako peoia)	Gasolina	75	Targo Bank	OG			Banku-transferentzia bidez ordaindua
335	2013/07/05	Askotarikoak	Txaranga eta gazteentzako dohaintza	550	Nafarroako Rural Kutxa	OG			A.C. ren alde egindako banku-transferentziaren dokumentua dago, gero "Txaranga eta gazteentzako dohaintza" ordainketa egitekoa.
333	2013/07/05	NR Electrónica	Fra.: 238. zk.	1.617	Nafarroako Rural Kutxa			BTA	Transferentzia-aginduan honako ohar hau ageri da: "Paternaingo Kontzejuaren 238. faktura".

Agiriaren zk.	Ordainketaren data	Hirugarren interresduna	Kontzeptua	Zenbatekoa	Ordainbidea	Ordainagiri gabe	Sinatuta gabeko ordainagiria	Sinatutako ordainagiria Beste egiaziagiri batzuk	Ordainagiritako oharpenak/oharrak
339	2013/09/20	Askotarikoak	Elkartea	230	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
348	2013/12/26	Askotarikoak	Gabonetako afaria	400	Nafarroako Rural Kutxa			SO	Kontzejuburuak "Gabonetako afaria" ordainagiria aurkeztu zuen 2013-12-26an
49	2013/12/31	Askotarikoak	Kontzejuaeren etxerako tresneria	135	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
356	2013/05/30	Pailazoak	Pailazoak	850	Kutxa		SGO		
357	2013/05/30	Musika	Herriko jaietako musika	200	Kutxa			SO	
358	2013/05/30	Askotarikoak	Jaietako karaokea	600	Kutxa			SO	
359	2013/05/30	Upategia	Ardoa	348	Kutxa			SO	
Guztira				19.036					

2014. URTEA

30

ORDAINTEKO BETEBEHARRAK, JUSTIFIKATZIOAN GABEZIAK DITUZTENAK: FAKTURARIK GABE, ORDAINAGIRIRIK GABE, SINATUTAKO ORDAINAGIRIRIK GABE

Agiriaren zk.	Ordainketaren data	Hirugarren interesduna	Kontzeptua	Zenbatekoa	Ordainbidea	Ordainagiri gabe	Sinatuta gabeko ordainagiria	Sinatutako ordainagiria/ Beste egiaztagiri batzuk	Ordainagiritako oharrenak/oharrak
49	2014/02/28	Navarvendig	Fra.: 10634 (=kafe zerbitzua)	503	Nafarroako Rural Kutxa			BZ	Helbideratze bidezko zordunketa 2013-11-11ko 10634 zk.ko Fra.ri buruzkoa da, eta 503,15 eurokoa da.
63	2014/03/28	Angel de Aralar	Dohaintza	150	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
70	2014/03/28	Askotarikoak	Bozgorailuak	145	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
97	2014/06/02	Txinurri Minurri Elkarte	Jaietako laguntza	200	Nafarroako Rural Kutxa		Transferentzia agindua	Transferentzia-aginduan honako hau ageri da: Jaietako ekitaldietarako laguntza. Onuraduna: Txinurri Minurri Elkarte	
99	2014/05/21	Navar Producciones	Puzgarriak	1.080	Nafarroako Rural Kutxa		Transferentzia agindua	Transferentzia-aginduan honako hau ageri da: Paternaingo puzgarriak. Onuraduna: Navar Producciones	
154	2014/03/01	Paypal Europe	Zerbitzua	49	Caixa		BZ	Paypal Europe bidez ordaindua Bankuko kargua duen ordainagirian ez da ageri erositako ondasunari buruzko daturik	
159	2014/05/26	Paypal Europe	Zerbitzua	17	Caixa		BZ	Aurreko bera	
160	2014/05/26	Paypal Europe	Zerbitzua	44	Caixa		BZ	Aurreko bera	
162	2014/05/26	Paypal Europe	Zerbitzua	30	Caixa		BZ	Aurreko bera	
198	2014/11/03	T.U.G.	Garbiketa	756	Nafarroako Rural Kutxa		Transferentzia agindua	Transferentzia-aginduan honako hau ageri da: "Kontzejuaren etxea eta parkea garbitzea, egur honetara arte:....". T.U	
201	2014/12/13	Askotarikoak	Elkarterako materiala	302	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
206	2014/10/03	Factoría de Internet y Comunicación SL	Kudeatzailearen gaurkotzea	302	Nafarroako Rural Kutxa		Transferentzia agindua	Transferentzia-aginduan honako tzeptu hau ageri da: "Edukien kuren gaurkotzea ordaintzea Facto Internet" enpresari	

Agiriaren zk.	Ordainketaren data	Hirugarren interesduna	Kontzeptua	Zenbatekoa	Ordainbidea	Ordainagirik gabe	Sinatuta gabeko ordainagiria	Sinatutako ordainagiria/Beste egiaztagiri batzuk	Ordainagrietako oharpenak/oharrak
207	2014/12/11	T.U.G.	Garbiketa	592	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
213	2014/11/19	Colectivo Lat	Aldizkarien ordainketa	60	Nafarroako Rural Kutxa			Transferentzia agindua	Transferentzia-aginduan honako kontzeptu hau ageri da: LAT kolektiboari 400KW-ko linearen aurkako aldizkariaren erosketari
223	2014/05/30	Jaietako zerbitzariak	Herriko jaietako zerbitzua	400	Kutxa		SGO		Ordainagirian, honako hau ageri da: jaietako zerbitzaria: izena (S.A.)
222	2014/05/30	Uno Más Uno Eventos y Comunicación	Karpa	1.350	Kutxa	Banakako ordainagirik gabe			* 222. dokumentutik 233. dokumentura 6.254 euro egiten dute. 3.195 euro egiten duten ordainagiri partzialak daude. Gainerakoetatik, ez dago ordainagirik
224	2014/05/30	Uno Más Uno Eventos y Comunicación	Mariatxia	650	Kutxa	Banakako ordainagirik gabe			Zendearen eguneko ekitaldien zerrenda batean, Mariatxi baten emanaldia dago aurreikusia, 650 euroko kostuarekin
225	2014/05/30	Uno Más Uno Eventos y Comunicación	Sagardotegi zerbitzua	2.324	Kutxa	Banakako ordainagirik gabe			Zendearen eguneko ekitaldien zerrenda batean, Catering zerbitzu bat dago aurreikusia, 2.324 euroko kostuarekin 83 bazkaltiar
226	2014/05/30	Uno Más Uno Eventos y Comunicación	Karaokea	600	Kutxa	Banakako ordainagirik gabe			Zendearen eguneko ekitaldien zerrenda batean, Karaokeko ordubeteko emanaldia dago aurreikusia, gehi DJ baten hiru ordu, 600 euroko kostuarekin.
228	2014/05/30	Uno Más Uno Eventos y Comunicación	Magoak	800	Kutxa	Banakako ordainagirik gabe			Zendearen eguneko ekitaldien zerrenda batean, magoen emanaldi bat dago aurreikusia, 800 euroko kostuarekin
231	2014/05/30	Uno Más Uno Eventos y Comunicación	Kanoiak	30	Kutxa	Banakako ordainagirik gabe			"Kanoiak" esaten denean, karpa berotzeko kanoiak dira. Zendearen egunerako ekitaldietan aurreikusitako gastua da

Agiriaren zk.	Ordainketaren data	Hirugarren interes-duna	Kontzeptua	Zenbatekoa	Ordainbidea	Ordainagiririk gabe	Sinatuta gabeko ordainagiria	Sinatutako ordainagiria/ Beste egiaztagiri batzuk	Ordainagiritako oharpenak/oharrak
233	2014/05/30	Uno Más Uno Eventos y Comunicación	Txotxongiloak	500	Kutxa	Banakako ordainagiririk gabe			Zendearen eguneko taldien zerranda bat txotxongiloen emane bat dago aurreikusia euroko kostuarekin
229	2014/06/04	Orkestra	Herriko jaietako emanaldia	700	Kutxa			SO	13-06-04ko ordaina honako hau ageri da jaietako zerbitzuak. SGAdeturak (E.L.). SGA likidazioa ere badag
230	2014/05/30	Funesko erraldoiak	Herriko jaietako emanaldia	500	Kutxa		SGO		Ordainagirian honak ageri da: 2014ko jai erraldoiak. Izen-deit (P.C.) eta tel. zk.
232	2014/05/30	Musika	Herriko jaietako emanaldia	725	Kutxa			SO	14-05-30eko ordaina sinatuta dago (sinadulertezina)
234	2014/05/30	Askotarikoak	Kopa-erronda	500	KUTXA		SGO		Ordainagirian honak ageri da: Kopa-errondarako laguntz. Honako honek jaso (izena (R.O.). Sinadul gabe
237	2014/05/13	Askotarikoak	Sukalderako laguntza	150	Kutxa			SGO	Ordainagirian honak ageri da: Jaietako sukalderako laguntz. izenak. Baina sinadul ez dago
236	2014/12/13	Askotarikoak	Garbiketarako materialak, lanabesak eta Kontzejuaren etxeko butanoa	335	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
237	2014/03/07	Dinafax	Fotokopiagailuko tonerrak	148	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
251	2014/01/03	A.G.I. (=peoi kon-tratua)	Kilometrajea	160	Nafarroako Rural Kutxa	OG			
264	2014/12/22	Trofeos Navarra	Trofeoak	256	Nafarroako Rural Kutxa			Transferentzia agindua	
275	2014/05/30	J. S. J.	2014ko jaietako kartelerako sarria	80	Kutxa			SO	
Guztira				14.438					